

**NAZIOARTEKO
ANTZERKI
JAIALDIA**
FESTIVAL
INTERNACIONAL
DE TEATRO



URRIA - ABENDUA
OCTUBRE - DICIEMBRE

2025



Argitaratzailea / Edita: Vitoria-Gasteizko Udala | Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Udal Antzoki Sarea | Red Municipal de Teatros

Inprimatzailea / Impresión: Gráficas Irudi

Lege Gordailua / Depósito Legal: VI-404/07

AURKIBIDEA / ÍNDICE

Data Fecha	Ikuskizuna Espectáculo	Antzokia Teatro	Prezioa Precio	Ohiko deskontuak Descuentos habituales	Or Pág
urriak 2 octubre osteguna / jueves	<i>La consagración de la primavera</i> Roger Bernat	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	18 €	Bai / Sí	6
urriak 3, 4 octubre ostirala, larunbata / viernes, sábado	<i>La mujer rota</i> LAZONA Teatro	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	24 €	Bai / Sí	7
urriak 9 octubre osteguna / jueves	<i>Lo peor que le puede pasar a un niño</i> Ékoma Teatro, Red Municipal de Teatros	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	15 €	Bai / Sí	8
urriak 10 octubre ostirala / viernes	<i>Un sublime error</i> Needcompany	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	18 €	Bai / Sí	9
urriak 16 octubre osteguna / jueves	<i>El peor espectáculo del mundo (de momento)</i> Zanguango Teatro	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	15 €	Bai / Sí	10
urriak 17 octubre ostirala / viernes	<i>Todos pájaros</i> Ysarca, Wadji Mouawad	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	24 €	Bai / Sí	11
urriak 23 octubre osteguna / jueves	<i>Non dira haurrak</i> Tartean Teatroa	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	15 €	Bai / Sí	12
urriak 25 octubre larunbata / sábado	<i>Gnawa, Liberté, Na Floresta, Cantus</i> Compañía Nacho Duato	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	20 €	Bai / Sí	13
urriak 26 octubre igandea / domingo	<i>Mr. Bo</i> Marie de Jongh	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	6 €**	Ez / No*	14
urriak 29 octubre asteazkena / miércoles	<i>Sombras, por supuesto</i> Romina Paula	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	18 €	Bai / Sí	15
urriak 30 octubre osteguna / jueves	<i>Entrañas</i> El Patio Teatro	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	15 €	Bai / Sí	16
urriak 31 octubre ostirala / viernes	<i>Historia del amor</i> Agrupación Señor Serrano	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	18 €	Bai / Sí	17
azaroak 2 noviembre igandea / domingo	<i>Va de Bach</i> Araladanza	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	6 €**	Ez / No*	18
azaroak 6 noviembre osteguna / jueves	<i>El barbero de Picasso</i> Amor al Teatro, Teatro Español	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	20 €	Bai / Sí	19
azaroak 6 noviembre osteguna / jueves	<i>Harrimena lantzeko ariketak</i> Zirrara Kolektiboa	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	15 €	Bai / Sí	20
azaroak 8 noviembre larunbata / sábado	<i>Memento Mori o la celebración de la muerte</i> Sergio Blanco	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	18 €	Bai / Sí	21

azaroak 9 noviembre igandea / domingo	Moko Gorakada	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	6 €**	Ez / No*	22
azaroak 12 noviembre asteazkena / miércoles	Manual básico de lengua de signos para romper corazones Patty Brava & Factory Producciones	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	15 €	Bai / Sí	23
azaroak 13 noviembre osteguna / jueves	You have an inner world, so what? La Senior-Larrua, Red Municipal de Teatros	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	18 €	Bai / Sí	24
azaroak 14 noviembre ostirala / viernes	Vulcano Centro Dramático Nacional, Cassandra Projectes Artísticos, Andrea Jiménez	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	20 €	Bai / Sí	25
azaroak 16 noviembre igandea / domingo	Qoroq Kolektiv Lapso Cirk	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	6 €**	Ez / No*	26
azaroak 20 noviembre osteguna / jueves	La otra bestia Come y Calla Producciones	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	20 €	Bai / Sí	27
azaroak 20 noviembre osteguna / jueves	Nor naizen banekí Artedrama, Axut	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	15 €	Bai / Sí	28
azaroak 21 noviembre ostirala / viernes	Un tranvía llamado Deseo Producciones Teatrales Contemporáneas	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	24 €	Bai / Sí	29
azaroak 28 noviembre ostirala / viernes	Blaubeeren Barco Pirata, Sergio Peris-Mencheta	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	24 €	Bai / Sí	30
azaroak 29 noviembre larunbata / sábado	Hokuspokus Familia Flöz	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	18 €	Bai / Sí	31
abenduak 4, 5 diciembre osteguna, ostirala / jueves, viernes	Dyptich Peeping Tom	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	20 €	Bai / Sí	32
abenduak 11 diciembre osteguna / jueves	Grandissima Illusione Cris Blanco, CDN	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	15 €	Bai / Sí	33
abenduak 12, 13 diciembre ostirala, larunbata / viernes, sábado	Los yugoslavos Teatro de la Abadía	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	24 €	Bai / Sí	34
ANTZERKIA ZABALTZEN / TEATRO ABIERTO					35
OFF LOKAL					
irailak 26, 27, 28 setiembre ostiraletik igandera de viernes a domingo GASTELANIAZ / CASTELLANO	Ante todo, Bomba Shanghai Carmen San Esteban & La claqueta Diario del enemigo El mono habitado Algo muy tocho Pez Limbo Máquina mística iara Solano Arana	Topalekua / Punto de encuentro: Teatro Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia	15 €	Ez / No	37 38 39
urriak 3, 4, 5 octubre ostiraletik igandera de viernes a domingo EUSKARAZ / EUSKERA	Hegan egiteko gogoa da Piszifaktoria Trembling Frequencies María Helena Vilhelksson 1.koadroa: Epaiketa Parasite Kolektiboa Topa eta ito Ane Gebara	Topalekua / Punto de encuentro: Teatro Beñat Etxepare Antzokia	15 €	Ez / No	40 41 42

HAURTZOAK PROIEKTUA / PROYECTO BEBÉS

azaroak 22 noviembre larunbata / sábado	Tú y yo DA.TE Danza	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	12 €** Bai / Sí*	43
azaroak 23 noviembre igandea / domingo	Bihotz bihotzez Teatro Paraíso	Federico García Lorca CC. Lakua G.E.	12 €** Bai / Sí*	44
azaroak 30 noviembre igandea / domingo	Flores Patricia Ruz	Federico García Lorca CC. Lakua G.E.	12 €** Bai / Sí*	45

ATALAK

irailak 10, 17, 24 setiembre asteazkena / miércoles	Imaginarios posibles Inés Aubert	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	Dohainik / Gratis	46
---	--	--	-------------------	-----------

TOPAKETAK TALDE ARTISTIKOAREKIN / ENCUENTROS CON EL PÚBLICO

urriak 16 octubre osteguna / jueves	El peor espectáculo del mundo (de momento) Zanguango Teatro Antzezpena bukatutakoan / Tras la representación	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	Dohainik / Gratis	46
azaroak 20 noviembre osteguna / jueves	La otra bestia Come y Calla Producciones Antzezpena bukatutakoan / Tras la representación	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	Dohainik / Gratis	46

EMANALDI IRISGARRIAK / FUNCIONES ACCESIBLES

azaroak 12 noviembre asteazkena / miércoles	Manual básico de lengua de signos para romper corazones Patty Brava & Factory Producciones	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	Zeinu-hizkuntza bidez interpretatua, eta azpitituluekin / Interpretada en lenguaje de signos y con subtítulos	47
abenduak 13 diciembre larunbata / sábado	Los yugoslavos Producciones teatrales contemporáneas	Félix Petite CC. Ibaiondo G.E.	Azpituluak, audiodeskripzioa eta begizta magnetikoa / Subtítulos, audiodescripción y bucle magnético	47

ANTZERKIA IRAKURGAI / TEATRO PARA LEER

urriak 28 octubre asteartea / martes	Un tranvía llamado Deseo Aurkezpena / Presentación	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	***Dohainik / Gratis	47
azaroak 18 noviembre asteartea / martes	Un tranvía llamado Deseo Lantzeko saioa / Sesión de trabajo	Jesús Ibáñez de Matauco CC. Hegoalde G.E.	***Dohainik / Gratis	47

SARREREN SALMENTA VENTA DE ENTRADAS **48**

INFORMAZIO OROKORRA / INFORMACIÓN GENERAL **49**

* Heldu bat + haur bat / Persona adulta + menor

** %50eko deskontua familia ugarietarako / 50% descuento a familias numerosas

*** Antzerkia irakurgai tailerreko bi saioetan parte hartzen dutenei sarrera bat gordeko zaie azaroaren 21eko antzerki-ikusizunerako. Se reservará a las personas participantes en ambas sesiones del Teatro para leer una entrada para el espectáculo teatral del día 21 noviembre

ANTZERKIA / TEATRO

NAZIOARTEKO 50. ANTZERKI JAIALDIAREN INAUGURAZIOA

ESPECTÁCULO INAUGURAL DE LA 50ª EDICIÓN DEL FESTIVAL INTERNACIONAL DE TEATRO

La consagración de la primavera

(Pina Bausch)

Roger Bernat

urriak 2 octubre, 19:00

Pina Bausch-ek 1975ean sortu zuen *La Consagración de la Primavera*, Igor Stravinskyren jatorrizko partitura batetik abiatuta, Tanztheater Wuppertal konpainiarentzat. Alemaniako antzerki-dantzaren lan ikoniko bat da.

Hizkera koreografiko sentsuala, basatia eta biziki gizatiarra baliatuta, aztergai ditu, besteak beste, kolektibitatea, sakrifizioa eta gorputzen gaineko zapalkuntza.

2010ean, Roger Bernatek dantzari profesionalik gabe irudikatu zuen *La Consagración de la Primavera*, ikusleak interprete bihurtuta.

Parte-hartzaileek, espazio huts batean eta aurikularrak jantzita, koreografiari eta ibilerari buruzko jarraibide sinpleak jasoko dituzte. Pixkanaka-pixkanaka, keinu indibidual horiek erritu bat osatuko dute. Ikusleak artista bihurtuko dira, beharbada erabat ulertuko ez duten mekanismo baten baitan. Ezinegona pizten duen lan erradikalak, pertsona oro aurrez aurre jarriko duena talde-dinamikan daukan rolaekin.

Proposamen originala jaialdiaren 50. edizioaren hasiera ospatzeko. Jakinguraz beteriko ikusle aktiboek esperientzia teatral eta koreografiko ahaztezina biziko dute.

Musika / Música: Cristóbal Saavedra Vidal, Igor Stravinsky-en koreografian oinarrituta / a partir de la partitura de Igor Stravinsky

Sorkuntza eszenikoa / Creación escénica: Roger Bernat, Pina Bausch-en koreografian oinarrituta / a partir de la coreografía de Pina Bausch

LAGUNTAILEAK / Con la colaboración de: Txalo Toloza, María Villalonga, Ray Garduño, José-Manuel López Velarde, Tomás Alzogaray, Brenda Vargas, Diana Cardona, Annel Estrada y Viani Salinas

Zuzendaritza teknikoa / Dirección técnica: Txalo Toloza



La Consagración de la Primavera de Pina Bausch, creada en 1975 para el Tanztheater Wuppertal a partir de la partitura original de Igor Stravinsky, es una obra icónica del teatro-danza alemán.

Con un lenguaje coreográfico sensual, brutal y profundamente humano se exploran temas como la colectividad, el sacrificio y la opresión de los cuerpos.

En 2010, Roger Bernat reimagina *La Consagración de la Primavera* sin bailarines profesionales, convirtiendo al público en intérprete.

En un espacio vacío, cada participante lleva auriculares que le transmiten instrucciones coreográficas o de comportamiento sencillas. Poco a poco, estos gestos individuales conforman un ritual. El público se convierte en artista dentro de un mecanismo que quizás no comprenda del todo. Es una obra inquietante y radical que confronta a cada persona con su propio papel en la dinámica del grupo.

Una original propuesta para celebrar la apertura de esta 50 edición del festival y compartirla con un público activo, curioso, que vivirá una experiencia teatral y coreográfica inolvidable.

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

60 min

18 €

La mujer rota

LAZONA Teatro

urriak 3 octubre, 19:30

urriak 4 octubre, 19:30



Gabon zahar gaua da. Etxean dago Murielle, bakarrik. Loak hartu ezinik dago, ospakizunen kaleko zarata eta bizilagunen oihuak direla eta. Esna-aldi horretan, oroitzapenek aurrez aurre jarriko dizkiote atsekabez beteriko oraina eta etorkizun iluna. Galdutakoak, kendutakoak, porrotak eta bakardadeak noraezean darama linbo batera, biziraupenaren eta heriotzaren artean borrokan. Haren benetako tragediak —komediatik ere baduena— suntsitu egin du emakume, emazte, ama eta alaba gisa zuen autoestimua.

Simone de Beauvoiren testuaren egokitzapen bat, jatorrizkoaren indarra mantentzen duena. Anabel Alonsok antzeppen bikaina egiten du, bere narratiban harrapatutako emakumea maisutasunez irudikatuz, umore azidotik tragediara igarota. Zaindutako eszenaratze baten bidez, islatu egiten ditu gure kontraesanak, beldurrak eta entzuna izateko beharra, beste aldean inor ez dagoenean ere.

Emakumeak aurre egin beharko dio bere islari eta iraganekeo mamuei. Alabak baztertua, maitasunak traizionatua. Hala, bere bakarriketarako giza hauskortasuna erakutsiko digu, argitasunaren eta eromenaren artekoa.

Nochevieja. Murielle está en casa, sola. Los ruidos de la calle y los gritos de sus vecinos celebrando le impiden conciliar el sueño. En esa vigilia, los recuerdos se enfrentan a un presente desolador y a un futuro poco prometedor. Lo perdido, lo arrebatado, el fracaso y la soledad la hacen deambular en un limbo donde se debate entre la supervivencia y la muerte. Su verdadera tragedia—que también es comedia—ha hecho trizas su autoestima como mujer, como esposa, como madre y como hija.

Una adaptación del texto de Simone de Beauvoir que preserva la fuerza del original, magistralmente interpretado por Anabel Alonso, que encarna con maestría a esta mujer atrapada en su propia narrativa, transitando del humor ácido a la tragedia. Con una puesta en escena depurada, refleja nuestras contradicciones, miedos y la necesidad de ser escuchados, incluso cuando ya no hay nadie al otro lado.

Esta mujer se enfrenta a su reflejo y a los fantasmas de su pasado. Rechazada por su hija y traicionada por el amor, su monólogo desvela la fragilidad humana entre la lucidez y la locura.

Zuzendaritza / Dirección: Heidi Steinhardt

Antzezlea / Intérprete: Anabel Alonso

Zuzendaritza-laguntzailea / Ayudante de dirección: Ana Barceló

Eszenografia eta jantziak / Escenografía y vestuario: Alessio Meloni

Soinu-diseinua / Diseño de sonido: Luis Miguel Cobo

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

90 min

24 €

Lo peor que le puede pasar a un niño

Ékoma Teatro,
Udal Antzoki Sarea /
Red Municipal de Teatros

urriak 9 octubre, 19:30

Post mortem azterketa, edo nekropsia, prozedura mediko bat da. Gizakiei hil ondoren egiten zaie, gizabanakoak bizitzan izan dituen baldintza medikoei buruzko informazioa lortzeko.

Lan honetan, 40 urte inguruko mutil batek, Barbie izeneko alter egoarekin batera, bere bizitza-nekropsia egingo du. Hala, kontatuko dute nolako haurtzaroa izan zuen, nolako nerabezaro eta heldutasuna, nolako eragina izan zuten harengan irakasleek, aitak, aitonek, lagunek eta gainerako figura maskulinoek. Bere maskulinitatea nola eratu den deskubrituko dute pixkanaka, harik eta Barbiek nekropsia leherraraziko duen arte.

Barbie eta untxi baten nekropsia bat eszenaratuz, Javier Liñerak antzerkia erabiltzen du, azken arte gisa ez ezik, xaxatzeko, gogoratze, birrintzeko, duintzeko... tresna gisa ere.

Eszena krudelak ditu, baina ez desatseginak. Gogorak, baina gomendagarriak. Zoragarri idatzitakoak, eta taularako ederki planteatuak.

Tokiko koprodukzio eszenikorako laguntzen 2024ko deialdia irabazi duen proiektua. Gasteizko Udal Antzoki Sarea.

| **OHARRA:** Argi estroboscopiak erabiliko dira

Dramaturgia eta zuzendaritza / Dramaturgia y dirección: Javier Liñera

Antzezleak / Intérpretes: Aitor Pérez, Haizea Águila

Argiztapen-diseinua / Diseño de iluminación: Edu Berja

Eszenografia / Escenografía: ATX Sorkuntza

ERABATEKO ESTREINALDIA / ESTRENO TOTAL



El examen post mortem o necropsia, es un procedimiento médico que se realiza en seres humanos después de su muerte para obtener información sobre las condiciones médicas del individuo durante su vida.

En esta pieza, un chico de unos 40 años junto con su alter ego, Barbie, realizarán su propia necropsia de vida. Así irán desgranando como fue de niño, cómo vivió su adolescencia y madurez, cómo le influyeron los profesores, su padre, abuelos, amigos y demás figuras masculinas. Irán descubriendo cómo se ha ido conformando su propia masculinidad, hasta que Barbie haga explotar la necropsia.

Poniendo en escena a Barbie y una necropsia de un conejo, Javier Liñera utiliza el teatro no solo como arte final, sino como herramienta para azucarar, recordar, revolver, dignificar...

Logra escenas crueles, pero no desagradables. Duras, pero recomendables. Y maravillosamente escritas y planteadas dramáticamente.

Proyecto ganador de la convocatoria 2024 Ayudas a la coproducción escénica local. Red Municipal de teatros de Vitoria-Gasteiz.

| **AVISO:** Se utilizan luces estroboscópicas

TEATRO JESÚS IBÁÑEZ DE MATAUCO ANTZOKIA

80 min

15 €

Un sublime error

(Bélgica)

Needcompany

urriak 10 octubre, 19:30

Jan Lauwers egile eta zuzendariaren "musetako" bat da Gonzalo Cunill. Sari ugari irabazi ditu harekin, hala nola Obie saria, New Yorken. Bi gizon horien arteko adiskidetasun handiak iraganean murgiltzera eraman ditu, kritikotasunez, eta iragan horren laburpena egitera.

Un sublime error lanak oinarri ditu Jan Lauwersen antzezlanetako pertsonaia galdu maskulino guztiak, Gonzalo Cunillek interpretatuta. Gizon baten erretratu intimoa, munduari harriduraz begiratzen diona ulertu gabe zergatik den bera ere mundu horren parte.

Jan Lauwersen lanak bilaketa bat du abiapuntu: une bakoitzean duen kolaboratzailearen erretratu ahalik eta osatuena zirriborratzea. Bere ustez, garrantzi bera dute pertsonaiak eta hura hezurmamitzen duen pertsonak. Pertsonaiengan indibiduo gisa barneratzen da bete-betean, dibertsitateari eta identitateari buruzko dogma garaikideak gainditzeko modua bilatuz beti. Giza izaera lehen lerrora dakar, erdigunera. Porrotak, maitasunak, borrokak eta arazo handi zein txikiek leku berezia hartuko dute beti.

Testua eta zuzendaritza / Texto y dirección: Jan Lauwers

Performance: Gonzalo Cunill

Musika / Música: Rombout Willems

Dramaturgia / Dramaturgia: Elke Janssens



Una de las "musas" de Jan Lauwers, autor y director de la pieza, es Gonzalo Cunill, con quien ha ganado numerosos premios, como el Obie en Nueva York. La intensa amistad entre estos dos hombres los llevó a zambullirse críticamente en el pasado, a recapitarlo.

Un sublime error está basada en los personajes masculinos ligeramente perdidos de la obra de Jan Lauwers, interpretado por Gonzalo Cunill. Es un retrato íntimo de un hombre que mira al mundo con asombro y ni siquiera logra entender por qué él también forma parte del mismo.

La obra de Jan Lauwers se basa en una búsqueda por esbozar un retrato lo más completo posible de la persona con quien esté colaborando en ese momento. Para él tienen la misma importancia el personaje y la persona que le da vida. Se mete realmente en la piel de sus personajes como individuos, buscando la forma de trascender los dogmas contemporáneos sobre diversidad e identidad. Sitúa la naturaleza humana en un primer plano y en el centro. El fracaso, el amor, la lucha y los problemas grandes y pequeños siempre ocupan un lugar especial.

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

80 min

18 €

El peor espectáculo del mundo, de momento

Zanguango Teatro

urriak 16 octubre, 19:30

Biopic zoro bat, errebaleko heroi batena, alproja batena. Mundura jaio zen, munduan denetik egon behar delako.

Pieza komiko bat, norbait izaten saiatu arren, azkenean untxiena bezalako bizitza dutenei buruzkoa: arrastorik utzi gabe sastrakaz sastraka salto egin, eta, atzera begiratzean, eskopetekiko beldurra besterik ez dute ikusten.

Aurrekontu hutsalarekin eta material eskas-eskasekin beren bidea egiten asmatu duten guztientzako omenaldia.

1993an sortu zen Zanguango Teatro, eta kaleko zein aretoetako ikuskizunak ekoizten ditu. Ekintza dramatikoaren ardatz gisa baliatzen dituzte sorkuntza kolektiboko teknikak, alderdi fisikoa, mugimendua, espazioaren erabilera eta erritmoa.

Giza portaeraren alderdi guztiak lantzen dituzte, eguneroko egoera ezagunen alderdi magiko, nahasi eta dibertigarriak bilatzearekin batera.

Umorearen alde egiten dute. Umore kritikoa eta korrosiboa, gai sozialekin, politikarekin eta gizatasunarekin konprometitua. Tragediara, poesiara, ironiara eta absurdo hurbiltzen dira, gure patetikotasunaz barre egiteko.

Emanaldiaren ondoren, topaketa lantalde artistikoarekin.
Gonbidapenak leihatilan eskuragai urriaren 7tik aurrera.

Idea / Idea: Txubio Fernández, Miguel Muñoz

Zuzendaritza / Dirección: Miguel Muñoz

Antzezlea / Intérprete: Txubio Fernández

Butoh dantza / Danza Butoh: Ainhoa Alberdi

Musika-aholkularitza / Asesor Musical: Bingen Mendizabal



Un delirante documento, un *biopic* protagonizado por un héroe de barrio, un ser prescindible que está en el mundo porque tiene que haber de todo.

Una pieza cómica sobre quienes intentan ser alguien pero, al final, su vida es como la de los conejos, que saltan de mato en mato sin dejar rastro y, al mirar atrás, sólo ven el miedo a las escopetas.

Un acto de amor hacia todas esas personas que se hacen a sí mismas con bajo presupuesto y malos materiales.

Fundada en 1993, Zanguango Teatro ha producido y produce espectáculos de calle y de sala. Se basan en técnicas de creación colectiva, en lo físico, el movimiento, en la utilización del espacio y el ritmo como ejes de la acción dramática. Tratan el comportamiento humano en todas sus facetas, buscando la parte mágica, desconcertante y divertida de las situaciones más cotidianas y reconocibles. Apuestan por el humor, un humor crítico, corrosivo, comprometido con lo social, con lo político, con lo humano, que bascula hacia la tragedia, la poesía, la ironía y el absurdo, para reírnos de lo patéticos que somos.

Encuentro con el equipo artístico tras la representación.
Invitaciones en taquilla a partir del 7 octubre.

TEATRO JESÚS IBÁÑEZ DE MATAUCO ANTZOKIA

60 min

15 €

Todos pájaros

Ysarca, Wadji Mouawad

urriak 17 octubre, 19:00

Todos pájaros antzerki-testuak garrantzi handia du gaur egun ere. Izan ere, Israel eta Gazako gerraren egoera ikaragarriari heltzen dio, tragedia klasikoaren kutsua duen maitasun istorio baten bidez.

Jatorrizko frantseszeko bertsioa Parisen antzeztu zen (2017), La Colline Théâtre National antzokian; sari ugari jaso zituen eta arrakasta itzela izan zuen publikoaren artean.

Jatorri libanoarreko Wajdi Mouawad-ek, *Incendios* antzeztan ahaztezinaren egileak, etsaiaren sentimenduak eta minak deskribatzen ditu atentatuz inguratutako giro tirabiratsu batean. Nagusiki Israelen garatzen da ekintza, testuinguru berezi batean: maitemindutako gizon-emakume gazteen suizidio-olatu batek hartu du herrialdea. Bikote israeldar-palestinar horien maitasuna ezinezkoa izatera kondenatuta dago, eta horregatik, protesta-seinale gisa, beren buruaz beste egitea erabakiko dute.

Antzeztan honek sentimendu kontrajarriak erakutsiko dizkigu: jasotako herentzia kulturala, guraso eta seme-alaben arteko maitasuna, ingurune oldarkor batek sortutako gorrotoa eta norbere nortasunaren onarpena.

Egilea/ Autoría: Wadji Mouawad

Zuzendaritza / Dirección: Mario Gas

Antzezleak / Intérpretes: Aleix Peña Miralles, Candela Serrat, Vicky Peña, Manuel de Blas, Pere Ponce, Anabel Moreno, Lucía Barrado, Juan Calot, Nuria García, Pietro Oliver



Todos pájaros es un texto teatral de importantísima relevancia en la actualidad ya que aborda la terrible situación que vivimos con la guerra de Israel y Gaza a través de una historia de amor con tintes de tragedia clásica.

Se representó en versión original en francés en París (2017) en La Colline Théâtre National y fue galardonada con numerosos premios y gran éxito de público.

Wajdi Mouawad, autor de origen libanés de la inolvidable obra *Incendios*, describe los sentimientos y dolores del enemigo en un tenso ambiente rodeado de atentados. La acción se desarrolla principalmente en Israel y se inscribe en un contexto singular: una ola de suicidios de jóvenes varones y mujeres enamorados afecta a todo el país. Estas parejas israelo-palestinas están abocadas a que su amor sea imposible y por ello deciden matarse en señal de protesta.

La obra muestra la contraposición de sentimientos entre la herencia cultural recibida, el amor paternofilial, el odio generado por un entorno hostil y la aceptación de la identidad de uno mismo.

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

180 min
(1ª parte 95 min.
atsedenaldia - descanso
2ª parte 70 min.)

24 €

Non dira haurrak

Tartean Teatroa

urriak 23 octubre, 19:30



Zortzi urteko neska baten suizidio-saiakera kontatzen duen antzezlan. Itxura guztien arabera, sinestea zaila den arren, neskatoa bere buruaz beste egiten saiatu da. Maddi txikia bolada txarra pasatzen ari da. Ez du jateko gogorik, eskolako notek okerrera egin dute nabarmen. Gurasoek ez dakite zer egin alabarekin, ez baitu inolako azalpenik ematen. Azkenean, Leire psikologoaren kontsultara eramatea erabaki dute.

Baina inork ezingo du ahalegin tragikoa saihestu. Neskatua larri zaurituta agertuko da hondartza ondoko arroka batzuetan. Horren gainean eraikitzen da dramaturgia, gizarte hautsi, krudel eta zeharo depresibo batek haurtzaroan duen eragina agerian uzten duena.

Aurreiritziz betetako ikuspegia dugu haurtzaroaz: etapa idilikotzat daukagu, haurrengan inozentzia eta ziorontasuna soilik gailenduko balira bezala. Kontakizun partekatu gehien barneratutako falazietako bat da.

"Haurrek ez dute oroitzen guk irakatsi nahi dieguna. Gu zer garen oroitzen dute".

Jim Henson

Estamos ante una obra que cuenta el intento de suicidio de una niña de ocho años. Todo apunta a que, aunque parece difícil de creer, la niña ha intentado suicidarse. La pequeña Maddi está pasando una mala racha. No tiene ganas de comer, las notas del colegio han empeorado considerablemente. Los padres no pueden saber qué hacer. Su hija no da ninguna explicación. Al final deciden llevar a la niña la consulta de la psicóloga Leire.

Sin embargo, nadie podrá evitar el trágico intento. La niña aparece gravemente herida en unas rocas junto a la playa. Sobre este hecho se sitúa la dramaturgia, que pone de manifiesto la influencia de una sociedad rota, cruel y extremadamente depresiva en los niños.

Tenemos una idea preconcebida de la infancia como etapa idílica, como periodo donde la inocencia y la felicidad de los niños se reparte a partes iguales. Es una de las falacias más integradas en el relato compartido.

"Los niños no recuerdan lo que queremos enseñarles. Recuerdan lo que somos".

Jim Henson

Egilea eta zuzendaritza / Autoría y dirección: Jokin Oregi

Antzeleak / Intérpretes: Iraia Elías, Getari Etxegarai, Javier Barandiaran, Iñigo Aranburu, Ruth Guimerà, Irene Zarrabeitia.

Kolaborazioa zuzendaritza plastikoa / Colaboración dirección plástica: Ane Pikaza

Abestien letrak / Letras de las canciones: Miren Agur Meabe

Argiztapen diseinua / Diseño de Iluminación: Edu Berja

Jatorrizko musika / Música original: Adrián García de los Ojos

TEATRO JESÚS IBÁÑEZ DE MATAUCO ANTZOKIA

Hizkuntza / Idioma: euskara

85 min

15 €

Gnawa, Liberté, Na floresta, Cantus

Compañía Nacho Duato

urriak 25 octubre, 19:30



Nacho Duato koreografo ospetsua berriz ere datorkigu bisitan, oraingo honetan, talentu gaztez osatutako konpainiaren buru gisa. Bere lan ospetsuenak berpiztuko ditu, eta bere sorkuntza berria aurkeztuko.

Gnawa lanak liluratu egingo gaitu bere indar, dotorezia eta espiritualtasunarekin, Nacho Duatok bere sustraie-tan, arbasoen herentzian eta Mediterraneoarekin duen lotura intimoan sakondu baitu.

Esklaboen etsipena, mina eta sufrimendua mugimendu bihurtuko dira *Liberté* lanean, giza eskubideei buruzko kontzientzia kolektiboa pizteko deia egitearekin batera.

Lan nabarmenen artean dago *Na Floresta*, oihanaren edertasuna eta folklorea birsortzen dituen tríptico musikala.

Urrezko amaiera *Cantus* izeneko sorkuntza berriak emango du. Berezko duen talentuarekin txundituko gaitu, bere lengoia koreografikoa Kart Jenkinsen musika bote-retsarekin batuta. Konpainia gaztearentzat sortutako lan honek hizpide ditu gatazka beliko baten izugarrikeriak, gerraren erdian harrapatutako gazteen ikuspegitik. Hala, indarkeriak eta suntsipenak haien bizitzetan duten eragina erakutsiko digu.

Koreografia eta jantzien diseinua / Coreografía y diseño de vestuario: Nacho Duato

Musika / Música: Heitor Villa-Lobos/Wagner Tisso / Hassan Hakmoun/Adam Rudolph (Gift of the Gnawa, "Ma'Bud Allah"); Juan Alberto Arteche y Javier Paxariño (Finis Africae, "Carauari"); Rabih Abou-Khalil, Velez, Kusur y Sarkissian (Nafas, "Window") / Toto Bissainthe (Rasanbleman) / Karl Jenkins

Argiztapen-diseinua / Diseño de iluminación: Nicolás Fischtel

El prestigioso coreógrafo Nacho Duato nos visita de nuevo, esta vez liderando su propia compañía de jóvenes talentos y haciéndonos revivir sus obras más icónicas y presentando su nueva creación.

En *Gnawa*, que cautiva por su fuerza, elegancia y espiritualidad, Nacho Duato profundiza en sus raíces, en la herencia de sus antepasados y en su conexión íntima con el Mediterráneo.

En *Liberté* la desesperación, dolor y sufrimiento de los esclavos son transformados en movimiento, haciendo un llamamiento a la conciencia colectiva sobre los derechos humanos.

Entre las piezas destacadas se encuentran *Na Floresta*, un tríptico musical que recrea la belleza de las selvas amazónicas y su folklore.

El broche de oro será *Cantus*, su nueva creación, donde nos sorprende con su inconfundible talento, fusionando su lenguaje coreográfico con la poderosa música de Kart Jenkins. Creada para su joven compañía, habla de los horrores de un conflicto bélico a través de los ojos de jóvenes atrapados en medio de la guerra y cómo la violencia y destrucción afectan sus vidas.

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

120 min

Bi atsedenaldi / Dos descansos

20 €

Mr. BO

Marie de Jongh Teatroa

urriak 26 octubre, 18:00

Gorputzaren bidez, hitzik gabe eta clown teknikak baliatuta, botere-, morrontza- eta tirania-jokoei buruzko istorio polemikoa dakarkigu konpainiak. Desproporzioekin jolasten duen eszenografiarekin, eta maskara handien eta iman bidezko ezarkin dibertigarrien bidez, antzezlanak hizpide ditu Bo jaunarentzat bizitza osoa lanean daramaten hiru zerbitzari; marmartia eta apetatsua da Bo jauna, eta begirunerik eta errespeturik gabe tratatzen ditu. Oso ohituta daude bere aginduak betetzera, eta ahaztu egin dute behinola, Bo haurra zenean, "aski da" esateko gai izan zirela. Orain beranduegi dirudi, baina beharbada bigarren aukera bat izango dute. Familia osoarentzako ikuskizun honetan, nahita bilatutako inozentziaz eta umorez esploratzen dira botere despotikoaren zergatiak eta hari aurre egiteko moduak.

Euskal konpainia bat da Marie de Jongh, 2008an sortua eta Jokin Oregik zuzendua. Haien lanek, betiere kalitate handiko egikerarekin, hainbat bereizgarri dituzte: hitzik eza, clown erregistroa, maskaren erabilera, objektuen manipulazioa eta musika sostengu gisa baliatzea.

Max 2025 sarietan finalista, haur, gazte edo familiarantzako ikuskizun onenaren kategorian.

Egilea eta zuzendaritza / Autoría y dirección: Jokin Oregi

Antzezleak / Intérpretes: Ana Martínez, Ana Meabe, Anduriña Zurutuza, Javier Renobales

Musika / Música: Adrián de los Ojos

Argitzapen-diseinua / Diseño de iluminación: Eduardo Berja



A través del trabajo de cuerpo, sin palabras y utilizando técnicas del clown, la compañía nos muestra esta controvertida historia de juegos de poder, servidumbres y tiranías. La escenografía juega a la desproporción, usando máscaras de gran tamaño y divertidos apliques de imanes, *Mr. Bo* habla de tres sirvientes que llevan toda su vida trabajando para el señor Bo, un adulto gruñón y caprichoso que los trata sin consideración ni respeto. Están tan acostumbrados a cumplir sus órdenes que han olvidado el día en que, cuando Bo era un niño, pudieron decir "basta"

Un espectáculo para toda la familia que explora, con una deliberada ingenuidad y con humor, las razones del poder despótico y el modo de enfrentarnos a él.

Marie de Jongh, compañía vasca creada en 2008 y dirigida por Jokin Oregi, se caracteriza en sus obras de impecable factura por la ausencia de palabra, el registro clownesco, la utilización de máscaras, la manipulación de objetos y el apoyo en la música.

Finalista en los Premios Max 2025 a Mejor Espectáculo infantil, juvenil o familiar

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

Adina / Edad: +4 urte / años

55 min

6 €

Sombras, por supuesto

(Argentina)

Romina Paula

urriak 29 octubre, 19:30

El Silencio konpainia berriro elkartu da, hainbat lan emblematico aurkeztu ostean (*Algo de Ruido hace, El tiempo todo entero, Fauna*). Hamar urte igaro ondoren nola lotzen dira gorputz horiek, ahots horiek, orain? Oraindik ere ba al dute, beren baitan eta beren artean, garai batean izandako loturarik? Elkarrekin izandakoa ekarriko dute gogora? Ala zerbait berria sortuko dute?

Sombras, por supuesto antzezlanak aktoreen lengoaiari buruzko ariketa bat proposatzen du Rainer Werner Fassbinder zinemagilearen unibertsoan, zeinak beti inspiratu baitu konpainiaren lana: giro espektrala, saiakera, itzulpena eta errepikapena, bere lanarekin elkarriketan aritzeko.

Buenos Airesen jaio zen Romina Paula, 1979an. Dramaturgia ikasketak egin zituen EMADen. Aktore gisa, Alejandro Catalán, Ricardo Bartís eta Pompeyo Audivertekin trebatu zen. Eszena alternatiboan, bitxia da Romina Paula. Aktore, zuzendari eta antzerkigile izateaz gain, bi liburu idatzi ditu, oso pertsonalak eta erakargarriak: *¿Vos me querés a mí?* eta *Agosto*.

Testua eta zuzendaritza/ Texto y dirección: Romina Paula

Antzezleak / Intérpretes: Esteban Bibliardi, Esteban Lamothe, Susana Pampón, Pilar Gamboa

Jatorrizko musika / Música original: Germán Cohen

Espazio eszenikoa eta argiak / Espacio escénico y luces: Sebastián Arpesella, Romina Paula

ESTREINALDIA EUSKADIN / ESTRENO EN EUSKADI



La compañía El silencio vuelve a reunirse después de obras tan emblemáticas como *Algo de Ruido hace, El tiempo todo entero* y *Fauna*. Pasados diez años, ¿cómo se vinculan esos cuerpos, esas voces, en el presente? ¿Contienen en sí y entre sí los vínculos que supieron tener? ¿Evocan lo que fueron juntos o fundan algo nuevo?

Sombras, por supuesto propone un ejercicio sobre el lenguaje de las actrices y actores en el universo del cineasta Rainer Werner Fassbinder, que siempre inspiró el trabajo de la compañía: su aire espectral, el ensayo, la traducción y la repetición como formas de dialogar con su obra.

Romina Paula nació en Buenos Aires en 1979. Es egresada de la Carrera de Dramaturgia de la EMAD. Como actriz se formó con Alejandro Catalán, Ricardo Bartís y Pompeyo Audivert. Romina Paula es un sujeto extraño de la escena alternativa. Además de ser actriz, directora y dramaturga, escribió dos libros sumamente personales y atractivos: *¿Vos me querés a mí?* y *Agosto*.

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

60 min

18 €

Entrañas

El Patio Teatro

urriak 30 octubre, 19:30

Galdetu al diozue inoiz zuen buruari zer daukagun barruan? Mendez luzez, giza gorputzaren misterioak argitzen saiatu da gizateria. Guk apur bat gutxiago daramagu... Giza gorputzean barreneko ibilbide laburra, gure barrenaren barrenera egindako bidaia bihurtu da. Bidaia honen amaieran, hasieran baino galdera gehiago izango ditugu: Nora doaz gure gorputzak, desagertzen direnean? Zer gara? Zertaz gaude eginda? Zer da gorputz bat? Jolas bat da emaitza, anatomiari buruzko ikasgai labur bat, El Patio Teatro konpainiaren eskutik.

Izaskun Fernández eta Julián Sáenz Lópezek sortu zuten El Patio Teatro, Logroño, 2010ean. Eguneroko gauzen emozioetatik abiatzen diren istorioak kontatzeko premia du oinarri konpainiak. Istorio horiek aitzaki hartuta, lengoia propio baten bilaketan murgildu dira, agertokien gainean kontatu ahal izateko. Gaur arte, konpainiak lau ikuskizun sortu ditu: *A Mano, Hubo, Conservando memoria* eta *Entrañas*. Horiek guztiek, estatu-mailako zein nazioarteko sariak jaso dituzte.



¿Os habéis preguntado alguna vez qué llevamos dentro? La humanidad lleva siglos tratando de desentrañar los misterios del cuerpo humano, nosotros un poco menos... Nuestro breve paseo por el cuerpo humano, se ha convertido en un viaje al interior de nuestro interior. Al final de este viaje, tenemos más preguntas que al principio. ¿A dónde van nuestros cuerpos cuando desaparecen? ¿Qué somos? ¿De qué estamos hechos? ¿Qué es un cuerpo? El resultado, un juego, una breve lección de anatomía, de El Patio Teatro.

El Patio Teatro fue creada en Logroño en 2010 por Izaskun Fernández y Julián Sáenz López. La compañía nace de la necesidad de acercar al público historias que surgen de su emoción ante lo cotidiano y que son la excusa para la búsqueda de un lenguaje propio que les ayude a contarlas sobre un escenario. Desde entonces la compañía ha creado cuatro espectáculos: *A Mano, Hubo, Conservando memoria* y *Entrañas*. Espectáculos que han recibido premios nacionales e internacionales.

Zuzendaritza, gidioa, dramaturgia / Dirección, guión, dramaturgia: El Patio Teatro

Antzezleak / Intérpretes: Izaskun Fernández, Julián Sáenz López

Jatorrizko musika / Música original: Nacho Ugarte

Jantziak / Vestuario: Martín Nalda

TEATRO JESÚS IBÁÑEZ DE MATAUCO ANTZOKIA

45 min

15 €

Historia del amor

Agrupación Señor Serrano

urriak 31 octubre, 19:30

Nola sortzen da maitasuna? Noiz sortzen da maitasuna? Zergatik bilatzen dugu etengabe, gure bizitzan zehar? Ibilbide luzeko talde eszeniko hau ez da sekula berrikuntzaz nekatzen. Hala, Gasteizera itzuliko dira maitasunaz hausnartzeko: merezi al du, oraindik ere, maitasun-istorio batean murgiltzeak?

Performer bat mahaira hurbildu, kamera manipulatu, eta estatua txiki bat enfokatuko du; desio-grina antzeman dezakegu estatuaren aurpegian. Beharbada hasieratik antzemango duzue Agrupación Señor Serrano taldearen egiteko modua, espezialistak baitira istorioak kontatzeko hitzak, irudiak eta objektuak baliatzen. Oraingoan, guztioi interesatzen zaigun zerbait buruz mintzatzeko zaizkigu. Protagonistak bere maitasun-istorioa kontatuko digu, eta, aldi berean, dokumental bat ikusiko dugu maitasunaren historiari buruz. Performerraren istorioa, benetan al da maitasunaren historia? Edo, agian, haren istorioa da soilik? Maitasunaren historia bakarra dago? Pantailan, zuzeneko irudiak eta zinema-mundukoak ikusiko ditugu.



ESTREINALDIA EUSKADIN / ESTRENO EN EUSKADI

¿Cómo nace el amor? ¿Cuándo nace el amor? ¿Por qué su búsqueda es una constante en nuestras vidas? Este colectivo escénico de larga trayectoria que nunca se cansa de innovar vuelve a Vitoria-Gasteiz para reflexionar si, a estas alturas, todavía vale la pena involucrarse en una historia de amor.

Una performer se acerca a la mesa, manipula la cámara y la enfoca sobre una estatuilla en la que reconocemos un rostro con expresión de deseo. Quizás desde el primer momento ya reconozcan la manera de hacer de la Agrupación Señor Serrano, especialistas en contar historias con palabras, imágenes y objetos. Esta vez nos hablarán de un tema que nos interesa a todos y todas. La protagonista contará su historia de amor, mientras en paralelo asistimos a un documental sobre la historia del amor. ¿La historia de la performer es realmente su historia? ¿O quizás es la suya? ¿Existe una sola historia del amor? Imágenes en directo y también imágenes del universo cinematográfico pasan por la pantalla.

Zuzendaritza / Dirección: Álex Serrano, Pau Palacios

Performance: Anna Pérez Moya

Dramaturgia / Dramaturgia: Álex Serrano, Pau Palacios, Cristina Cubells, Clara Serra

Zuzenaritza-laguntzailea / Ayudante de dirección: Cristina Cubells

Eszenografia / Escenografía: Mas Glaenzel, Sara Leme

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

80 min

18 €

El barbero de Picasso

Amor al Teatro, Teatro Español

azaroak 6 noviembre, 19:30

